

lhesbidek, Scape Room inklusiboa gauzatzeko, bezeroekin harreman estua, leiala eta eskuragarria ezarri nahi du, hainbat estrategia konbinatuz.

Horregatik, bezero bakoitzari arreta eta laguntza pertsonalizatua eskainiko diogu, bere beharretara egokituz eta Scape Room-ean parte hartzen duten guztientzat gertuko esperientzia eskuragarria eskainiz. Parte hartze aktiboa eta etengabeko laguntza sustatuko ditugu, pertsona bakoitza eroso eta barne sentitzen dela bermatuz. Hurbiltasuna eta konfiantza funtsezko faktoreak izango dira giro atsegina sortzeko, eta bezeroek eskertu egingo digute, harreman pertsonalizatua eta arreta-zerbitzu aparta eraikitzeke aukera emanaz.

Hona hemen estrategia horren funtsezko elementuak:

1. Sustapen eta deskontu pertsonalizatuak:

Diru-sarreretako atalean aipatu bezala, deskontu bereziak eskainiko dizkiegu gure ohiko bezeroak, talde handiei eta egun berezietan.

Ohiko bezeroentzako aldizkako sustapen eksklusiboak sortuko ditugu, haien itzulera eta leialtasuna sustatuz.

2. Bezeroentzako txartelak:

Leialtze-txartelen sistema bat ezarriko dugu, gure zerbitzuetan bost aldiz edo gehiagotan parte hartu izan duten bezeroei (baldintzak aldatzen joango gara, malgutasunez lan egingo dugu, hau da, ez gara estatikoak izango. Horrek, bezeroei eta suertatzen diren aldaketei egokitzea ahalbidetuko digu), onura ezberdinak ezarriz (lehenago aipatutako deskontuak, promozioak, gure merchandising-eko produktuak oparituz, zozketak antolatuz, etab).

3. Hileroako komunikazioa gure online plataforma guztietan:

Hilero bezeroei boletinak bidaliko dizkien posta elektronikoz eta sare sozialen bitartez beritasunen, sustapenen eta eduki garrantzitsuen berri emateko. Elkarteen eta eskolen posta elektronikoa haien webguneetan txertatuta daude, baina parte hartzaile konkretuei heltzeko gure sare sozialetan eta webgunean lhesbideko gmail-a jarriko dugu, haiek gurekin kontaktatu ahal izateko. Horrez gain, inkestetan edo gure lokalera gerturatzean, erabiltzaileen gmaila eskatuko diegu.

Eduki informatiboa eta interesgarria argitaratuko dugu sare sozialetan, eta mezu pribatuei erantzungo diegu, zuzeneko eta hurbileko komunikazio-kanal bat mantentzeko.

4. Egun bereziak:

Egun berezietan ekintza espezifikoak egingo ditugu, hala nola Down Sindromearen, Autismoaren, garuneko paralisiaren egunetan. Bertan, deskontu edo sustapen bereziak eskainiko ditugu, ospakizun horiek ezagutzeko eta horiekin bat egiteko.

5. Iritzi-inkestak:

Hilero, inkestak sortuko ditugu gure bezeroen iritziak, iradokizunak eta balorazioak jasotzeko. Horrekin, parte-hartzea, konfiantza, harreman sendoa eta giro seguru bat lortzeko asmoa dugu.

6. Urtebetetze ospakizunak:

Ohiko bezeroei urtebetetze-egunean, sorpresa berezi bat prestatuko diegu, hala nola gure merchandising-a oparituz, askari handiak eta jolasak eginez, baloratuak eta estimatuak sentiarazteko.

7. Komunitatean parte hartzea:

Bilboko hainbat elkarte eta eskoletara hurbilduko gara, bertan zuzendaritza-taldearekin bilduko gara gure proiektua azaltzeko. Horrez gain, gela ezberdinetatik pasatuko gara gure proiektuari buruzko hitzaldiak emanez, komunitatearekin dugun harremana sendotuz eta gure kontaktu-sarea zabalduz.